

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko maiatzaren 18an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

6.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Sormen dirulaguntzen 2023ko deialdiari dagozkion onartutako eskaeren ebazpena onartzea.

Adierazi da proposamenean akats bat dagoela. Horregatik, proposamenean honako partida zenbakia gehitu behar da: “540 kodedun diru-atalaren eta bere lotespen-mailaren kontura”. Momentuan bertan akatsa zuzentzen da eta alkate-udalburuaren 2023ko maiatzaren 16ko proposamenak, akatsa zuzenduta, honela dio:

Gaia: Sormen dirulaguntzen 2023ko deialdiari dagozkion onartutako eskaeren ebazpena onartzea.

2023ko maiatzaren 8n egindako haur eta gazteria batzordearen aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, hezkuntza teknikariak, Iñaki Akizu Agirrek, bere aktan jasotzen duenez.

“Sormen diru-laguntzak onartzea.

Iker Oñate batzordeburuak informatu du Sormen dirulaguntzen oinarriak eta deialdia 2023-02-23ko Osoko Bilkuran onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela martxoaren 14an. Talde interesdunek dirulaguntza eskatzeko epea behin amaituta, Kultura departamentua arduratu da aurkeztutako zortzi eskaerak aztertu eta ebazpen proposamena lantzeaz, teknikari arduradunaren baja tarteko. Jarraian zehazten dira eskaerak behin aztertuta proposatzen diren dirulaguntza kopuruak:

TALDEA			ESKATZAILEA	PROIEKTU KOPURUA	KOSTU OSOA	AURREIKUSIT AKO DIRU SARRERAK	UDALARI ESKATU	ADINA	50%	60%		
Doce C Klik	Eneko Haritza Olaeta	1	4100	Ez du jarri		4100	OK	2050	1600	2460	1600	
Dwingi Dwingi	Jon Ander Kortabarria	2	5700	Ez du jarri		5700	OK	2850	1600	3420	1600	
			500	Ez du jarri		500	OK	250	250	300	300	
Lehen lerroa	Iban Agirre	1	2300		1000	1300	OK	650	650	780	780	
Algaraz	Itziar Arkauz	3	1000	Ez du jarri		1000	OK	500	500	600	600	
			2600		1000	1600		800	1300	960	960	
			2600	Ez du jarri		2600		1300	1300	1560	1560	
Sukena	Eider Herraiez	2	4300	Ez du jarri		4300	OK	2150	1600	2580	1600	
			450	Ez du jarri		450		225	225	270	270	
Zarramarra	Iker Plazaola	3	1500		600		900		450	450	540	540
			750	Ez du jarri		750		375	375	450	450	
			1000		400	600		300	200	360	360	
Irazan	Josu zubia	2	1450	Ez du jarri		1450	OK	725	725	870	870	
			1800		1000	800		400	900	480	480	
Inguma	Beñat Leturiaga	1	2050	Ez du jarri		2050	OK	1025	1025	1230	1230	
GUZTIRA								14050	12700	16860	13200	

Batzordeak ontzat eman ditu aurkeztutako dirulaguntza proposamenak eta Tokiko Gobernu Batzordeari proposatzen ditu koadroan agertutako dirulaguntzak onar ditzala.”

Hau guztia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitorzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da diru-laguntza, diru-laguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Halaber, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, haur eta gazteria batzordearen onetsiarekin, Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Haur eta gazteria batzordeak egindako proposamenean zerrendatutako interesdunei dirulaguntzaren onuradun izaera berrestea, 2023ko dirulaguntzen deialdia ebaztea eta gastua baimentzea, goian aipatutako xehetasunekin.

Bigarrena.- Onarpenarekin batera dirulaguntzaren gastua onartzea (540 kodedun diru-atalaren eta bere lotespen-mailaren kontura) eta dagokion portzentaia ordaintzea interesdun bakoitzari.

Hirugarrena.- Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatzuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Laugarrena.- Dirulaguntza hauen onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen (BDNS) argitaratzea.

Bostgarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari, diruzainari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko Gobernu Batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

Alkatearen O.I.

Izaro Elorza Arregui

IDAZKARIA

Iñigo Roldan Catalan

